

ITSAS IZARRAK

Egun batean, hondartzan oinez zebilela, gizon batek emakume bati erreparatu zion. Etengabe makurtzen zen. Olatuek haren gainean utzitako itsas-izarrak jasotzen zituen eta uretara botatzen zituen.



-Zertan zabiltza?- galdetu zion gizonak **jakin-minez**.

-Itsas izarrak ozeanora bueltatzen ditut. Itsasbehera da eta ez baditut izar hauek itsasora botatzen, hementxe hilko dira.

-Ulertzen dut-erantzun zion gizonak, baina milaka izar daude hondartza honetan. Ezin dituzu guztiak bueltatu, gehiegi dira. Ziurrenik hainbat hondartzatan gauza bera gertatuko da. Egiten ari zarena ez da alferrikako lana?

Emakumeak irribarre egin zuen, makurtu eta itsas izar bat hartu zuen eskuetan. Itsasora botatzen zuen bitartean erantzun zuen:

-Honentzat, behintzat, ez da alferrikakoa izan!

1. Erreparatu irudiei eta X batekin markatu zuzena.



2. Aukeratu **X** batekin egia direnak:

- ☐ Itsas izar asko zeuden harearen gainean.
- ☐ Olatuek ekarri zituzten itsas izarrak hondartzara.
- ☐ Emakumeak itsagora zenean batzen zituen itsas izarrak.
- ☐ Itsas izarrak saltzen zituen emakumeak.

3. **X** batekin aukeratu.

*Gizonak **jakin minez** galdetu zion emakumeari.*

- ☐ Gizonak **kezkatuta** galdetu zion emakumeari.
- ☐ Gizonak **jakiteko gogoz** galdetu zion emakumeari.

4. Markatu. Zer adierazi nahi digu ipuinak?

- ☐ Izaki bakar bati laguntzeko aukera badugu, merezi du laguntzea.
- ☐ Ez baditugu denak salbatuko, ez du merezi salbatzea.